Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Aranzamendi Uriarte

Soraluze, Gipuzkoa (1922)

Aurkibidea

Biografia

Otolaneko okindegiko etxean jaio zen. Gaztaroko urte batzuk Frantzian eman zituen gerratik ihesi joan ondoren. Patricio Arribas Zabaletarekin ezkondu zen 1946an. Baltegietan eta Errekalden bizi izan zen. Argaratenean lan egin zuen urte batzuetan, torlojugintzan.

Zintak

SOR-004

- **Proiektua**: Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Data**: 2001-08-10
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Oregi, Benan - Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Unamuno, Egoitz

Pasarteak

1. Biografia laburra: eskolara noiz arte; gaztetatik umezain...

- **Erref**: SOR-004/002
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Eskola kontuak. Eskola munizipalak; mojak. Eskola amaitu eta umezain Bergarara. 14 urterekin Gasteizera umezain bost urtetan. Soraluzen gerra ostean lantegietan lan asko zegoela eta bertara itzuli zen.

Transkripzioa
- Eskolan zeuek nun ibili ziñien? Edo nun...? Zela zan orduan?
- Bai. Munizipaletan.
- Bai.
- Herriko eskoletan.
- Munizipalak zian?
- Bai. Gero monjak be bazeren, e? Monjak. Baiña harek aberatsenak ziran.
- Orduan, ahal zanera juan bihar.
- Bai. Ta hamahiru urtekin eskolatik urten ta kriada. Ume zain edo kriada edo...
- Hemen, herrixan bertan?
- Ez. Lehenengo juan nitzan Bergarara ume zain. Eta han be ondo [nengon] ta atzera deittu osten etxetikan Vitorixara.
- Juateko.
- Juateko. Hamahiru-hamalau urtekin. Hartu maletatxo bat,— kartoizkua zan orduan, e— ta señak portamonedan. Juan Vitorixara ta munizipalari: "¿La calle Dato dónde está, por favor?" Erakutsi ostan ta han bazekixen nindoiala eta...
- Badakit, Dato kalia badakit nun dagon.
- Onbre, prinzipala da ha kalia.
- Eta deittu [otsen] tinbriari ta "Aquí estoy porque he venido" ta ala! Sartu ta...
- Barrura.
- "Con trece años, ¿eh?"
- "Con catorce años".
- Eta zenbat denpora han?
- Ba, han... ba... gerria baiño urtebete lehenago juan nitzan, "en el treinta y cinco". Ta gero han nenguan oso ondo, e! Oso ondo. Lau urte in nittuan. Lau... bost urte in nittuan etxe haretan, baiña oso ondo, e!
- Bost urtian, e?
- Bost urte ein nittuan han! Ta gero, bai ba, hamen hasi ziran zerak, taillarrak. Neskak-eta jente guztia orduan, asko sartzen zan, andrak eta neskak eta danak. Eta gure amak eta aittak hamen asko irabazten zala ta... ala! Oin ez dao holakorikan. Oin, zu konforme bazare leku baten, nahiz ta amak eta aittak esan etortzeko, ez dia etortzen.
- Ez, diferente dao oin hori...
- Baiña gu etorri egin bihar. "Estaba yo contenta allí". Oso pozik nenguan ni

han. Baiña "aquí que se ganaba más", taillerretan asko irabazten zala ta ala! Etorri ein bihar. Ta gero hamentxe. Hamentxe lagunekin [...] ta ezkondu ta gero sei ume ta... Gure bizimodua! Gure bizimodua holaxe.

2. Gerra garaian Gasteizen

- **Erref**: SOR-004/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:03:10. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerra garaian Gasteizen. Familiako kontuak. Anaia preso egin zuten; ahizpa Bizkaia aldera ihesi; gurasoak Soraluzen gelditu ziren.

Transkripzioa
- Bai, ba, ni e... gerra-denporan hor zihar juan giñan.
- Ni ez nintzan juan gerra-denporan hortik zihar zegaittik eze Vitorixan nenguan, kriada nenguan Vitorixan. Eta haura lehenengo egunetikan nazionalekin geratu zan ta...
- Ta han libre?
- Han libre... eta han kitto! eta gaiñera asko sufritzen neban, e? Zegaittikan e... Plazentzian gorrixekin, eta enee! gurasuak hamen. Gero reketiak sartu ziala, aurrera juan bihar etxekuak eta gero, ba... Aitta ta ama ez zian juan, baina anai-arrebak, anaixa bai, anaia bai, juan zan, ta e... Elisabete, moruak bularrak-eta moztutzen zebela ta... aurrera, juan bihar, Bizkaixara... ta harek noiz etorri? Gure mutilla, gure Migel harrapau zeben prisionero ta... Eneee!
- Anaia?
- Anaia, bai.
- Ta gero, ba, haura be... aiztia be etorri zan. Haura kanpora ezkondu zan, ta gero, ba, hamentxe, gurasuekin...
- Poliki-poliki?
- Hamentxe...

3. Gerra garaian, Soraluzetik ihesi

- **Erref**: SOR-004/004
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:06:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra Zibila irten zenean, 14 urte zituen. Lehenik, Bilbora ihesi; gero, Santanderrera eta Frantziara. Mairuek sarraski ugari egiten zituztela aditzen zuen, eta Soraluzera itzultzeko beldurra zeukaten.

Transkripzioa
- Ba, ni horixe. Hamalau urtekin gerria zertu zan. Kanpora fan. Bilbotikan... Lehelengo Bilbon egon giñan. Bonbardeua bonbardeuan gaiñian. Nik

hartzen neban... Zatopek, badakizu zein zan Zatopek? "Un corredor de esto"... "No hay quien me pillaba a mí". Eneee... Ta gero Bilbotikan Santanderrera. Santanderretikan Franziara.
- Bai, nik gerria ez neban pasau.
- Franziara. Lehenengo egon nitzan familixa batekin han. Berekin, hartu zosten ta. Gero handikan etorri nitzan tio [bat...], nere aman anai bat [zeuan] Hendaian ta hantxe egon nitzan. Gero han be, gero, harek kanpo de konzentraziñora juan bihar zala ta honaxe etorri giñan. Bildur bat hona etortzeko... Horixe. Honek esan dabena, hemen moruak eitten zabela ez dakit zer ta badakit zer ta bildur batekin ni hona Plazentziara...!
- Ta zeu bakarrik ibili ziñan?
- Bai, bai, neu. Bildurra nakan hainbeste bonbardeuari ta hainbeste... Laga ama ta aiztia ta ni zerera. Bai. Oin baiño balientiaua.
- Ta zenbat...? Denpora askuan ibili ziñan kanpuan-ta?
- Ba, noiz etorri nitzan ni hona?
- "Cuarenta y..."
- [...] "desde el treinta y seis"...
- Gero hona etorri hona... Enee... Ni hemen daneri [...] baiña daneri bildurrez, e? Gero biharrera ta gero hantxe. Baiña pasauta "las canutas".
- Ta, orduan, lau urte bastante [...]?
- Bai. Lehelengo Bilbon egon giñan bastante denporan.
- Bai, hemen gerratia gogorra izan zan. Gogorra. Nik ez neban pasau, e! Nik ez neban pasau.
- Nik bai. Nik pasau nittunak...! Gero Barzelonara. Barzelonara. [Santanderretikan] Barzelonara. Han Granollers-en [gaozen], bonbardeo bat egon zan, baiña... Gernikako pare, e! Ta hori, tio, nik esaten dotena, haura Barzelonan zauan ta gu Granollersian. Ta etorri zan pentsatzen gu juan giñala Pekiñera. Ta ondiokan be bizirik.

4. Gaztea zela hasi zen gerra

- **Erref**: SOR-004/005
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:06:40. **Bukatu**: 00:07:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Bizimodu gogorra. Gerra gazterik bizi izan zuen. Bizimodua asko aldatu da azken urteotan.

Transkripzioa
- Ze nahi dozu esatia? Gero taillarrian, gero nobixua... ez dakit zenbat denpora... urte ibilli nobixuakin, ez oingo moduan...
- Bai, ba...
- ... eta ezkondu ta hala! Ze nahi dozu? Horixe...
- Gure gazterixia ez zan izan bape...
- Ez, ez...
- Lana ta lana ein bihar ta, gaiñera, gaiñera hutsa irabazten zenduan.
- Baiña pozik, e? Amari entregatzeko zera ta... Eneee!
- Horixe bai, pozik.
- Ez da oingo moduan, e!
- Eta erromerixia bazeuan...

- Maltzara ta.
- ... Maltzara erromerixara, oiñez, han filarmonikia egoten zan, ba. Dantza batzuk ein ta aintxintxika atzera kantuan, kantuan atzera etxera ta, ba! Abarketekin, baiña pozik...

5. Maltzagako erromeria

- **Erref**: SOR-004/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:07:25. **Bukatu**: 00:08:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Maltzagako erromeria. Aldasoro soinujolea. Dantza plazan. Neskatan-mutiletan.

Transkripzioa
- Abarketekin, baiña pozik.
- Bai, bai.
- Maltzara juaten ziñien erromerixara?
- Bai.
- Maltzara, bai, bai...
- Maltzako erromerixara, ezta?
- Bai.
- Ta gero hemen...
- Tabernatxo bat zeuan han, ta zeiñek joten zeban? Aldazabal era? Aldasoro! Aldasoro tocaba el acordeón, ta hantxe...
- Bai, bai.
- Hantxe... Hauraxe zan gure...
- Oin juan bihar plazara gu juaten giñan moduan, erdi-erdixan!
- Gustora, gaiñera!
- Ta, gaiñera, zera... batzuek etorri ta "¿Bailamos?" edo "Dantzan eingo dogu?", ta "Eeezzz!", laga mutilleri zerian ta... Nere amak hartzen eban pena bat, bera ikusten ezta? "Baiña zegaittik [...] horreri mutillori?" Ta gero beste batzuk etorri gustokuak eta harekin bai.
- Ta harekin...
- Bai, bai.
- Ba holaxe...
- Bai, enee!

6. Lan-baldintzak

- **Erref**: SOR-004/008
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Lan-baldintzak. Ordutegia. Bizimodu aldaketa.

Transkripzioa
- Ta ze ibilli ziñien, lan diferentiak-eta eitten, edo?
- Taillarretan?
- Ta zenbat bihar, gaiñera! Zortzi... ene, hamabixetatikan... edo Ordu bixetatikan hamarretara.... ta gero egon zan zer bat, biharra edo...
- Relebuan!
- Relebuan. Ta han gabeko hamarretatikan goizeko seiretara arte...
- Ta, gaiñera, esaten bazotsuen “Atsaldian etorri” pozik, gaiñera, atzera berriro be...
- Juateko?
- Pozik orduak sartzera!
- Ez eben emongo asko, baiña gu konforme. Konforme edo... holaxe zalakuan, ezta Martina? holaxe zalakuan.
- Baiña ez zeguan holan... gaurko... eneee!
- Ez, ez, diferentia da...
- Soiñeko bat eitteko... Bueno!
- Soiñeko bat eitteko juan igual ama ta Eibarrera edo ta.... Konforme! Ekarrizu oin honendako zeoze eta emoixozue, emoixozue, a ber...

7. Lan-kontuak emakume baten ikuspegitik

- **Erref**: SOR-004/009
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:11:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Lan kontuak. Fábrica de cuchillos. Gerora bizikleta lantegian. Ezkondu eta gero emakumea etxean geratzen zen. Bizimodua asko aldatu da.

Transkripzioa
- Ba, guk lehenengo eitten genduan, "Fábrica de cuchillos" zan. Lan txarra, e? Buenooo! Eitten genduan igual harrixan be bai, fundiziñuan be bai... Ta gero kutxilluetan pasau... juan... euki eben e... bajonazua, ta gero bizikletekin hasi ziran, bizikletiakin. [Han be] sopletian be eindda nao, sopletian be bai, qué no!
- Nik tornilluak, tornilluak eta tornilluak, han Argaratenian tornilluak, Automatiketan hantxe.
- Gero ba... ezkontzeko urten taillarretikan eta kitto.
- Bai...
- Ezkondutakuan...?
- Etxian!
- Etxian, bai. Oingo moduan ta ez, ezkontzen ziñan eta...
- Ke ba, ke ba...

- Beste forma baten.
- Enee!
- Zuek zenbat urtekin ezkondu ziñien ba?
- Ni hogeta hiru.
- Ni hogeta bost, hogeta bostekin.
- Gaztiak... Lehen gaztiao zertzen zan. Hogeta hirukin...
- Oin hogetirukin, puf!
- Hogeta bostekin be ez...
- Hogeta hamar oin be... ta gehixao be bai igual!
- Guk hogeta bi dazkau ta oindiok...!

8. Eskola kontuak Francoren garaian

- **Erref**: SOR-004/010
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskola kontuak. Francoren garaian euskaraz egiterik ez. Gerra aurretik ere eskolan erdaraz egiten zuten. Euskara erdi-ahaztuta.

Transkripzioa
- Holaxen gure bizimodua.
- Eskolan zuek euskeraz zeozer emon zenduen?
- Ez, ez.
- Ordurako ez zeuan ezer?
- Ezta...! Ez elizan, ez eskolan ta ez kalian be, e! Ez kalian be! Prohibiduta geunkaun Francon denporan. Bueno...! Dendetan be igual zeoze eskatu ta aldamenian bazeuan, “¡Hable usted en español!”, “No...” “¡En cristiano!”. “Me acuerdo que me dijo una guardiesa, aquella, sor Eloísa o que le llamaban”.
- Hemen, herrixan edo?
- E?
- Hemen, herrixan?
- Bai, bai, bai.
- Karnazerixan nenguan ta eskatu notsan zeozer ta… Inon karnazerixan, zeozer. “¡Hable usted en cristiano!”
- Holaxen gu…
- “Habla usted en cristiano”, esaten zeban. Etxian, eitten zan apurra etxian.
- Izena Miren, baiña Maria. Zerian be Maria dakat nik. Kanbixatzeko, kanbixatzeko...
- Ez kalian, ez eskolan, ez elizan...
- Eskolan? Ezta ezebe, e!
- Eskolan gerra aurretik be ez?
- Keba!
- Ez, ez, ez, ez.
- Ordurako ya ezebez?
- Keba!
- Eskolan ezta hauxe be ez dou ein euskeraz! Ezebe, ezebe, ezebe, ezebez.

- Ointxe ikasi dou guk dakiuna, e? Ointxe edo... bueno.
- Bai, ta horreaittik eitten dou hain gaizki!
- Bai. Bai. Egixa da, e!
- Horreaittik eitten dou hain gaizki.
- Bai, egixa da, e?
- Bai, bai, bai. Gaizki eitten dou. Eske ez doskue laga ta!
- Hori ez eixue pentsau, gaizki eitten dozuenik.
- Ez, zera!
- Baiña kostau jakun guri ipintzia zera, e! Ez pentsau...!
- Onbre! Ez zoskuen laga. Ni Vitorixan egon nitzan denporan...
- Dana erderaz.
- Nik han ez neban... Etxera etorri nitzanian kasi...
- Ahaztuta kasi.
- Ahaztuta ixa!
- Bai, bai.
- Ta gero hamen ezin zeikian ein euskeraz...
- Ta gerra aurretik be prohibiduta zeuan, e?
- Hamen, Francon denporan prohibiduta zeuan, “pero terminantemente”, e?
- Bai, bai. Zerian, eskola zera dana erderaz ta dana... Keba...!
- “Terminantemente prohibido”.
- Keba! Ez.
- Halaxen egon gara gu.
- Handik etorri ta holaxen, bildurrez, aber ze ein bihar dosten edo zer edo...

9. Soraluzera itzultzeko beldurrez

- **Erref**: SOR-004/011
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:14:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerra garaian, Soraluzera itzultzeko beldur handia. 14 urterekin lanean; irabazten zuena amari bidaltzen zion.

Transkripzioa
- Haura zan bilddurra! Ni bai, e, Martina, ni etorri nitzonan...
- Klaro, “porque habiais andado mucho”. Guk ez. Ni handikan etorri nitzan, ba... Baiña gustora neuan lekutik etorri ein bihar, fabriketan asko irabazten zala ta... Hogei pezeta emoten zosten han hillian. Hogei pezeta. Ta Eibar-Vitorian, —orduan Eibar-Vitoria zeuan autobusa—, txoferrari sobre batian ipiñi lau duro zidarrezkuak ta ama Gila-neko aurrian zain.
- Sobria hartzeko?
- Sobria hartzeko. Lau duro.
- Ekitzen zarz pentsatzen ta... baiña, zela? Zela? Zela kanbixau da...?
- Lau duro, zidarrezko duruak. Ta Eibar-Vitorian txoferrari emon ta ama Gila-neko aurrian zain. Txoferrari...
- Haura hartzeko.
- Bai.
- Orduan, umetan, gehixena gerra-denporan pasauko zenduen, ez? Bueno,

umetan edo gaztetan…
- Bai. Pentseizu, hamalau urtekin. Ta ordurako kriada nenguan!

10. Bonbardaketak Bilbon

- **Erref**: SOR-004/013
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:16:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaia. Bonbardaketak Bilbon.

Transkripzioa
- Zuek ez dozue pasau ta zuek ezin zaraz… Ezin zaraz…
- Ez, ez, ez. Keba! Ezta hurrik emon bez!
- Sirenia joten zebanian Bilbon ta, nik laga, bai, danak etxekuak eta tuneletara. Osea, han, “Siete calles” zela dauan zera? Han ipintzen [zeben] zakua ta hantxe sartu ta… Uste han…
- Hantxe egon?
- Aiii…! Bilddurra!!
- Vitorixan be noixian behin joten eben sirenia. Ta…
- Bilbon asko.
- … ta subterraneo batzuetara juaten giñan.
- Ta, hor, Granollers-en egon giñanian, joten zeben sirenia ta juaten giñan, etorri etxera, sartu etxian ta berriz. Ala berriz be! Haura zan bizimodua, e? Eneee…! Bilddurrez, bildurrez aidian! Ta gu zerera, hor zihar kanpora, ta beste batzuek…
- Onbre, onbre!
- Harrapatzera.
- Onbre! Harrapando, harrapando. Hamen be ein zittuen demasak ein zittuen hamen be.
- Bai. Han be [eitten zeben, ba]. Zu hor zihar juan zertzera ta beste batzuk sartu ta ala!
- Etxia lagatakuan?
- Bai. Bai. Enee… Horretakuak asko egon zian.
- Ni amakin ta aiztiakin. Aitta karzelan; [Zestaon] egon zan, bai. Bai. Ipiñi leike liburua, baiña… Bai. Asko, asko, asko.

11. Razionamendua

- **Erref**: SOR-004/014
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ostea. Errazionamendua.

Transkripzioa
- Ta gero, han, gerra-ostia ta gero, etorri [ziñenian]-ta, ya orduan pixkat mejoratzen juango zan poliki-poliki, ezta?
- Bueno, orduan ez zeuan... Dana razionamentua.
- Bai.
- Janakin-ta?
- Eneee... Postgerria zan... Gosia.
- Ogixa, ezin jan ogirikan be.
- Ogixa, holakotxe bollotxuak, integralak edo zera... gogor-gogorrak.
- Baiña desiatzen jateko!
- Baiña...
- Ni be bai, e? Enee... haura jateko.
- Gose haundixa pasau zan.
- Asko, asko.
- Baiña, tira! Ein genduan aurrera zela edo hala. Baiña etxian egoteko pozik.
- Bai.

12. Lan baldintzak

- **Erref**: SOR-004/015
- **Iraupena**: 0:00:23. **Hasi**: 00:17:05. **Bukatu**: 00:17:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Lan kontuak. Larunbatean ere lana. Udako oporrak, zortzi egun.

Transkripzioa
- Orduan ze eitten zenduen, hola, ze eukitzen zenduen libre, zapatuetan be lana?
- Bai, bai, zapatuetan be lana eitten zan...
- Bai, bai, hemen bostet´erdiak arte...
- Bai, bai, ta gero bakaziñuetan zortzi egun edo hamar egun edo bakarrik...
- Egoten zan ala?
- Zeoze bai!
- Ez dakit, ba!
- Bueno, ni ez non akordatzen. Bueno, ezkondu ta gero esaten jonat nik...
- A bai, ezkondu ta gero...
- Baiña ez asko, e?
- Baiña ez eguan bakaziñorikan orduan...
- Ez...

13. Ezkonbidaia

- **Erref**: SOR-004/016
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:17:28. **Bukatu**: 00:18:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Eztei-bidaia.

Transkripzioa
- A, etxera?
- Bai, ezkondu ta etxera.
- A, bestian etxera?
- Aman etxera.
- A, aman etxera!
- Bai. Ezkondu giñan...
- Esatia nahi dot, baiña, biaje de nobiosik eta ez...
- A, bai, bai! Bai, Zaragozara juan giñan.
- Hau elegante!
- Naparra zan nere gizona.
- Ni Bilbotikan Donostiara, Donostiatikan Bilbora.
- Bueno, baiña gure... nere gizona naparra zan ta hamendik Pamplonara ta Pamplonatik Zaragozara ein genduan. Zortzi egun...
- Elegante!
- Bai, bai... ein genduan...
- Oingo moduan, e, Martina? A las Bahamas, a Santo Domingo, ez-dakit-zer...

14. Gaztetan zinemara; dantza egitera...

- **Erref**: SOR-004/017
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:18:12. **Bukatu**: 00:21:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Gaztetan zinera sarri joaten ziren. Gayarre zinema. Bergarara ere joaten ziren dantza egitera. Trenez egiten zuten etxerako itzulera. Gaztetako kontuak. Pelikulak...

Transkripzioa
- Ta ezkondu aurretik-eta, jai-egunetan ze eitten zenduen?
- Ba, zinera be juaten giñan. Orduan zinera be ni asko juaten nitzan.
- Zinia zeuan hamen Plaentxian?
- Gayarre,
- “Cine Gayarre”. Bai.
- Romero. Luis Romerok eruaten eban hori, zinia.
- Asko juaten zan orduan zinera.
- Badakizu Gayarre nun egon zan, ezta?
- Bai, han Gabolatzen edo [ez zeuan]?
- Bai. Horrek etxiok...
- Bai, hemen, sartzerakuan.
- Ba, asko, e! Juaten zan zinera.
- Ta noixian behin musikia be egoten zan.
- Baitta, baitta.
- Gero Bergarara be juaten giñan dantzara. Ta, ba...

- Bergaran be egoten zan erromerixan bat, hola, egoten zan?
- Erromerixia... dantzara, ezta? Bergarara dantzara.
- Musikia.
- Bai, horixe.
- Musikia joten eban Bergarako bandiak be musikia joten eban hantxe plazan. Ta gero, ba, trenian buelta. Trenian juan ta...
- Pazkuetan be juan Bergarara, baiña gero trenian etorri bihar.
- Onbre, onbre.
- Trena ze ibiltzen zan, hori baporezko edo hori?
- Ez, ez, ostian. Baporrana ez.
- Zer?
- Trena.
- Elektrikua, bai. Bai. Baiña goizao etxera etorri bihar. Bueno, ezta... Eske ezin leike... Hainbeste... Enee...! Pasau? Nik pasau [nittunak] galantak, e! Denpora [gerran], e? Bueno...!
- Ta behin, akordatzen naiz, zinerako ez geunkaun danondako, ez geunkaun dirurikan danok juateko. “Veinte céntimos era, ¿eh? La entrada”. Ta ze ein genduan? Bateri emon dirua, harek zinia, pelikulia, ikusi ta gero Plaza Zaharrian jarri ta kontau.
- Ta konforme!
- Ba, horixe ein genduan behin. Plaza Zaharrian jarri ta haren zain egon ta harek, gero, kontau. Ta “pe a pa” kontau, gaiñera, e! Bueno...!
- Bai, bai, bai.
- Ze botatzen zittuen, zuri-beltzian botako zittuen, ezta?
- Bai. Orduan ez zeuan kolorezkorikan.
- Ez, ez, ez. Baiña juaten giñan ta ikusi be, gaiñera, ze interesekin! Enee...!
- Ta oin baiño pelikula polittauak, e! “Artistas también. Greta Garbo y Clark Gable y...” . Enee... Zelakuak! Bueno...!
- Bai, egixa.
- Oin dana tirua. Dana tirua ta... Orduan romantikuak zian. Polittak. “Rebeca era”, haura harek ikusi eban pelikulia.
- A! “Rebeca”.
- “Rebeca” kontau oskun. Haura be politta zan.
- Holaxen.
- Zeuk preguntau, e!
- Ze zeuan zine bat bakarrikan Plaentxian?
- Bai, bai. Horixe bakarrik. Gero hau elizakuau gero ein zan.
- Gero, gero!! Buenoo...! Hori, zerian... Noiz hori?
- Hori? Ointxe, ondiokan...
- Zenbat urte, ba?
- Bueno, bai. Baiña ez, ez zeban...
- Ez. Baiña han Gayarrian...
- Gutxi iraun zeban horrek?
- Bai.

15. Bizimoduaren aldaketa

- **Erref**: SOR-004/018
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:21:25. **Bukatu**: 00:23:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Bizimodua asko aldatu da. Nola ikusten duten gaurko gazteria.

Transkripzioa
- Holaxe...
- Lehenaotikan ze diferentzia hola kalian ikusten dozue, hola, jentian —nik ze dakitt ba— bizimoduagaittik edo ze...?
- Lehenao hobeto oin baiño
- Honek ez jone esango hori!
- Guk ez dogulako ezagutzen...
- Hor gaztiak lurrian jarritta ta... horrek negargarrixak dia. Igual urtetzen dozu, e... Atzo hamar t´erdietan etorri giñan etxera, zegaittikan, bakaziñuak eta, hamar t´erdietan eta, hor, e... Arranuan frentian, danak kuadrilla haundi bat... danak lurrian jarritta pipak jaten. Hori da gazterixia?
- Oin hola akostunbrau dittun eta guretzako pentsatzen jonau...
- Ez, guretzako ez da... no sé, no sé.
- Ez dakit, ez dakit. Ez dia entretenitzen gure moduan, uste dot, ez diala hola... ez dakit, ez dakit ze esan.
- [...].
- Oin neskak eta pelotara ta zera juaten dittun, pelotia jokuan pixkat zeoze ta...
- Ke ba, ke ba!
- Ez! Ka ba!
- Ta gero, ba, oin e... ezkondu gaztiak-eta badakizu: “Veraneo aquí, veraneo allá” ta...
- Hori bai...
- Ez, ez, e... dana dao e...
- Lehenao, gaiñera, trankillao bai igual biziko zan, ezta?
- Bai, asko be bai... asko be bai! Oiñ umiekin be ardura haundixa dauke gurasuak, e? Nik esaten dotset gure umieri, e: “No es fácil ahora ser padres, ¿eh?, No es fácil.”
- Ez, egixa da...
- Hombre!
- Lehen trankillao, ya lo creo trankillao.
- Oiñ? Oin gurasuen arduria haundixa da.
- Asko. Asko, bai. Baiña guria juan zonan, Martina. Juan zonan guria. Ze esango don, ba?
- Bueno, oindiok hemen gare!
- Bai, bai, bai. Galantak pasauta hor zihar baiña hemen gaonaz behintzat...
- Oindiok hemen gare!
- Bueno...!

16. Umetako jolasak

- **Erref**: SOR-004/019
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:23:15. **Bukatu**: 00:25:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Bizimodu lasaiagoa zen lehengoa. Kalean jolasean, nagusiak jokoan atarietan... Umetako jolasak. Komedianteak etortzen ziren eta haiek ikustera joaten ziren plazara aulkiak hartuta.

Transkripzioa
- Oindiok hamen gare...
- Bai, bai, bai, bai... galantak pasauta hor zihar baiña hamen gaonaz behintzat...
- Oindiok hamen gare... bai.
- Bueno, hango...!
- Ta hola, akordatzen zarie, ni, eske, beti akordau izan jata, hola, fotografixetan ta ikusi izan dotenian, beti gauza bat zertu jatana, jentia igual e... atsaldian ta goizian ta, ataixetan jarritta ta holako...
- Bai, tertulixan! Tertulixan...
- Eta jokuan be bai kanpuan han Gabolatzen ta? E? Han etara zer bat...
- Ta hamen be, gu bizi garan lekuan be bai, e? Ez eguan hainbeste etxe be ta...
- Mahaixa etara ta hantxe, jolasten...
- Jokuan. Bai.
- Kamiñuan be ez eguan hainbeste kotxe ta...
- Ke ba! Hainbeste etxe be ez eguan... Ataixetan, horixe, freskuran!
- Trankillao, bueno!
- Gero etxietan be ez eguan halako zera... sokia, sokia egoten zan ta...
- Bai... taka!
- ... jo sokiari ta, aurrera!, "Atsalde on!" ta... Oin ez dao halakorik, e? Oin e...
- Itxitta! Hala ta guzti be, hala ta guzti be...
- Norbera barruan dauanian be bai igual...
- Baiña orduan ez. Giltzakin itxi atia? Ezta pentsau bez! Sokiakin egoten zan, tira ein sokiari eta aurrera...
- Beste bizimodu bat zan, beste bizimodu bat, trankilidadia, bueno!
- Bai...
- Komerixetara...
- Baitta! Plaza Zaharrian komerixak.
- Komerixetara..., hartu aulkixa ta juan Plaza Barrira ta jarri ta hala!, komerixak ikusi ta...
- Oin horretxek be ez dare...
- Zer zian horrek?
- Komediantiak etortzen zian.
-Plazan, e?
- Komediantiak, payasos, circo, como circo.
- Jarri han danak eta ikusi ta...
- Danak aulkixekin, jarri ta...
- Gero pasatzen zeben bandejia be ta...
- Baitta! Bai, baiña horixe, más sano edo... Geure moduan baiña dibertitzen giñan.
- Bai, bai, oin e... ez dakitt, ez dao, ez dao...
- Zeoze falta dala...
- E?
- ... zeoze falta. Gauza asko, baiña...
- Bai, ene, asko!

17. Errekan bainuak

- **Erref**: SOR-004/020
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:25:15. **Bukatu**: 00:26:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Errekan bainuak. Debara umetan.

Transkripzioa
- Ta errekan-ta be lehen —bueno oin, zikindu zanian behin ya gero jenderik ez zan ibiliko, baiña, lehenao— erreka inguruan beste zer bat egongo zan, ezta, oiñ ez daona?
- Bai, bai!
- Enee!
- Errekan bai! Han Iturburun ta? Juaten giñan, han behian ta...
- Afariketan be bai han...
- Iturburun ez, han, zerian, Errekaldian...
- A! Errakaldian?
- Errakaldian han behian.
- Ba, Gabolatzeko han zerian be bai, presapian...
- Eta han Irukurutzetan be bai...
- Baitta, baitta.
- ... Irukurutzetan be bai... ta...
- Baitta. Baiña orduan urak be garbixak.
- Bai ba, ez oingo moduan.
- Urak be garbixak orduan.
- Bueno, ez jakiñau garbixak juaten zian, baiña juaten giñan behintzat eta...
- Eta jentia baiñatzen-eta ibiltzen zan?
- Bai, bai!
- Baiña ez traje de baiñuakin, e? Bata zahar batekin!
- Eta hor Loraldian? Hor? Hor asko, e? Mutillak be asko hor, e?
- Baiña hor urak hotzak!
- Bai, baiña... ni hor ez, e? Ni hor ez non egon behin be, e, baiña hor jentia juaten zan, e! Ako juaten zan, e? Oin, e... [urtian behin].
- Debara-ta juaten bagiñan be, alkilau eitten zan han traje de baiñuak, e! Orduan ez zeukaun traje de baiñurikan ezta... Kasetak zeren ta alkilau eitten ziran...
- Hantxe, sartu barruan ta...
- Sartu kasetan ta alkilauta...
- Bai, bai...
- Ene!

18. Umetako jolasak

- **Erref**: SOR-004/022
- **Iraupena**: 0:00:18. **Hasi**: 00:27:10. **Bukatu**: 00:27:28

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak. Afariketan.

19. Taberna giroa

- **Erref**: SOR-004/025
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Taberna giroa. Taberna izenak. Emakumeak tabernetan.

Transkripzioa
- E... tabernak eta ze taberna zeren hola lehenago...?
- Asko, asko.
- ... oin itxita darenak? Oin diferentiak egongo dira, seguramente.
- Asko. Hamen tabernia... hamen txikiteua ibili da beti, beti: Trabakua, Sinpatikia,...
- Zian tabernak horrek?
-Tabernak, tabernak: Errotatxo, Gila, Angelenekua, Tinterokua, Meltxor...
- Hori zer zeguan, Santa Anan?
- Bai, Meltxor Santa Anan...
- Baiña asko egon dia hemen tabernak, e! Asko, asko! Hamen txikiteua ibili da...
- Bai, bai.
- Si, si, si, si, bai, bai, tabernak asko...
- Bai.
- Lehen andreri tabernan ez jakuen lagatzen?
- Ene, ene!
- Andrak pentsau bez! Gu behintzat...
- Oiñ dabizen moduan, de poteo? Las mujeres con copas de vino? Ke ba!
- [Lehen] etxian eitten [zeben] poteo, etxerik etxera...
- Bueno, eingo zeben, e! Eingo eben lehen be...
- Baiña ez oingo moduan, e?
- Ez, ez, ez, ez.
- Ke ba! Oingo moduan ez...

20. Baserritarrak herrira saltzera

- **Erref**: SOR-004/026
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:30:30. **Bukatu**: 00:32:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Baserritarrak herrira saltzera. Ohitura zen baserritarrekin tratuan egitea. Astoarekin herrira.

Transkripzioa
- Hola, gero baserrittarren zera egoten zan hor, e, oin be egoten dia, baiña lehenago igual e... ferixia edo merkaua edo...?
- Baiña hamen ez dakitt egoten zan, e?
- Ez...
- Etortzen ziran merkauakin plazara, plazan egoten ziran, hori bai. Orduan ez eguan holako fruterixarikan ta...
- Ezta...
- ... orduan, ba...
- Dana basarriko zera izaten zan?
- Dana basarriko gauzia. Bai berduria ta bai frutia: keixak, sagarrak, madarixak... danetik ekartzen zeben, baiña dana basarrittarrena. Oin fruterixak ekartzen dabe...
- [Auskalo] nundik.
- Baiña lehen dana basarriko generua zan...
- Bai, egixa.
- Dana, dan dana.
- Ta, juaten ziñien hareri erostera ta?
- Bai, derrigor!
- Ta [zaten zan regateo ta]?
- Ene! Ene! Ene! Zenbat erregateo! Zenbat?! Zenbat?!
- Bai, zu, ene! Kostunbria, kostunbria edo uste...
- Bai, bajatu ein bihar dala...
- ... uste obligaziñua moduan, ez dakizu? "Hau zenbat?" eta "Hainbeste" ta e... Uste obligaziñua... Hartu... eskatu ta esto ta... Ke ba!
- Hori bai, hori bai, regateua asko.
- Regateua, baiña... Bai, egixa. Oin ez dao holakorikan, baiña lehen bai, lehen bai.
- Ta gero, autuak etorri aurretik eta akordatzen zarie igual astuekin eta zela ibiltzen zian?
- Hori bai... bai, astuekin...
- Astuak mordua orduan.
- Eske dana astua zan hamen basarrittikan.
- Orduan, gaiñera, ez zeguan basarrixetarako auto-biderikan.
- Eso es...
- Dana e... gaiñera bide txarra...

21. Tanbolinteroak

- **Erref**: SOR-004/029
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:33:50. **Bukatu**: 00:34:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Serenoak. Tanbolinteroak pregoia irakurtzen zuen.

Transkripzioa
- E, bueno, entzunda dakat, serenuak eta egoten zian lehen?
- Bai, bai.
- Bai, serenuak... Eta tanborterua be bai, e?
- A, bai!
- ... tarrapatatatatan ta bandua!
- Bandua!
- Bandua jote eban!
- A, bandua joten eban?
- Bai, bandua: "Ha venido..." ez dakit...
- Bai, "Ha venido un camión de naranjas no-sé-qué..."
- Bai, kalerik kale...
- Tanborra joten juaten zan, e?
- Bai, tanborrakin, tanborrakin.
- Egixa, bai...
- Eta zer eitten zittuan, holako berrixak? Udaletxeko berrixak eta holakuak esan?
- Bai, bai...
- Ez, etortzen zianian bateronbaten...
- Bai, baiña, también e... cosas de... Bando.
- A, bai, bando, bando.
- Bando. Alkatian zerak eta.
- A, bai, alkatian zera ta hau ta hau ta... Hori be bai, egixa. "En nombre del Señor Alcalde, no-sé-qué..."
- Bai, bai...

22. Janztetxeak

- **Erref**: SOR-004/030
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:34:50. **Bukatu**: 00:35:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Janztetxeak. Casianaren etxean aldatzen zituzten zapatak... mezara edo kalera joateko.

Transkripzioa
- Gero entzun dot, entzunda dakat e jaztetxia edo, zela zan, ze zan hori?
- Jaztetxia e, basarrikuak etortzen zian ta zaken e hor e zerian e.
- A, bai, igual mezetara edo ta bai ba, basarrittikan e igual e lokatzia ta ezin etorri ba etxia zeuken kalian.
- Kasiana, Kasiania, Kasiananera be etortzen zittunan, hori badakizu?
- Etxia zeuken kalian ta han aldatu eitten zian.
- Han aldatu.
- Zapatak eta bueno eta aldatu eitten zian, mezetarako edo zeozetarako...
- Bai, egixa, edo kanpora juan biha diala edo ta hor jartzen zian ta gero berriz atzera juateko aldatu ta.
- erropia bertan laga e, kalian laga ta.
- Bai, nik Kasianana badakitt.
- Bai, eske orduan zelako bidiak,ba igual lokatzia ta eurixa ein bazeban, abarkekin etortzen zian.

- Banaka-banaka.
- Bai, aldatu ta...

23. Baserritik kalera eskolara

- **Erref**: SOR-004/031
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:35:40. **Bukatu**: 00:36:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Baserriko umeak eskolara herrira etortzen ziren. Bazkaltzen herriko etxeren batean geratzen ziren.

Transkripzioa
- Ta umiak be bai, eskolan...
- Eskolan, bai.
- Eskolan, umiak, eskolara hara bajatu ta, zelan juango zian, ba, hor berriro bazkaltzera basarrira? Ezin juan! Ba, herrixan zeuken, behian zeuken etxeren bat eta...
- Bazkaltzera hara juaten zian?
- Han bazkaldu, eta gero... gabian, kalera. Edo... gero atsaldian, eskolatik urtendakuan, basarrira.
- Ta eskolan egoten zianian be eskolan be igual, ba, badakizu, trunboia ta esto ta hareri ba: "Bueno, zuek urten ta juan etxera zera baiñ olehen... eurixa..."
- Bai, "Trunboia baiño lehenao juan".
- Bai, hori be bai, eskolan hori, e, pasatzen zan.

24. Umetako jolasak

- **Erref**: SOR-004/032
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:36:20. **Bukatu**: 00:37:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak: sokasaltoan, zeleminetan, tortoloska, txirikiletan... Hauen inguruko azalpenak.

Transkripzioa
- Eskolan ta zetan jolasten zenduen ba zuek, ze...?
- Bueno, soka-saltuan,...
- Bai, errekreuan? Soka-saltuan, zelemiñetan... Oiñ ez dao holakorikan, e!
- Oiñ e...
- Ze zan hori?
- Zelemiñetan? Honek dittun... honek dittun onak! Honek...
- Honek ez jakiñe ezebe!
- Ba, lurrian eitten ziran arraixa batzuk eta harri batekin, ba, hankekin...
- Bota eta gero...?

- ... bai ba, hankekin, eta arraixia topatzen, jotzen badozu, ba...
- Hori jolastu dogu guk be bai, e?
- Jolastu dozue hori?
- Honbre jolastu dogula!
- Ta horrek zelan daka izena?
- Zelemiñetan
- Zelemiñetan?
- Zelemiñetan.
- Lehen zelemiñetan, oiñ ez dakiu zuek ze...
- Ta tartaloska be bai, tartaloska be bai.
- Bota ta buelta...?
- Bai.
- Bota ta... Ta soka-saltuan...
- Oiñ ez da ikusten hori be, e?
- Ezta, ezta....
- Lehenengo ipiñi [bortan] ta gero buelta...
- Ta txirikilletan be bai, txirikilliakin.
- Ta hori zela da?
- Halakotxe bat punta bikin, egurra, e? Ta...
- Gero egurrakin jo ta “da!”?
- Gero “klaka”!
- A! Hori ikusitta daukat.
- Kamiño erdixan eitten genduan...
- Ta gero lau kantoi edo ipiñi eta... hala!
- Kamiño erdixan eitten genduan, e! Oiñ juan zaitte... Kamiño erdixan! Orduan ez eguan kotxerikan, orduan ez zan automobillik... kamiño erdixan eitten genduan horrek jolasok...
- Bai, bai, egixa.
- Zelemiñetan be bai, kalian.
- Baitta. Bai, bai.
- Kamiñuan.

25. Eskola kontuak; dotrina

- **Erref**: SOR-004/033
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:37:35. **Bukatu**: 00:38:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskola orduak. Larunbat arratsaldetan dotrina izaten zuten. Eskolan, goizetan ikasi egiten zen; arratsaldetan, laboreak egiten zituzten. Liburu bakarretik ikasten zuten dena.

Transkripzioa
- Ze eukitzen zenduen, goizetik bakarrik edo?
- Ez, atsaldian be bai.
- Ez, atsaldetikan be bai.
- Atsaldian be bai.
- Lau t´erdietan urtetzen genduan, ezta?
- E... Zapatu atsaldetan dotriñia. Don Jose Mariak emoten joskunan dotriñia zapatu atsaldetan, ta gero ostian, ba... atsaldetan "labores también

hacíamos".
- Baitta, baitta.
- Laborak. Ta goizetan, ba, ikasi. Goizetan ikasi ta ikasi ta ikasi. Eta gero atsaldetan horixe, labores ta errekreua... ta gero zeoze irakurri ta etxera. Bai, eskolan ondo ibilli giñan. Zenbat bidar esaten dot nik... hainbeste liburu! Hainbeste... Holakotxe montoiak! Eta urte batetik bestera balixo ez! Zenbat... "Cuántas veces les digo... ¡con una enciclopedia!"
- Haretxekin!
- "Con una enciclopedia, toda la..."
- Bai... Toda la escuela!
- Toda la escuela hicimos!
- Bai, bai...
- Eta ikasi be bai, e? Zenbat bidar! Zeuek baiño gehixao gara askotan ta! Umieri, bereri etxeko lanak laguntzen ibiltzen giñan, hamahiru urtekin urten eskolatikan eta... "¡con una enciclopedia!" Dana! Bertan zeuan dana: Geografía, Geometría, Aritmética... Dana.
- Eske, ipintzen zaraz pentsatzen eta...

26. Eskolan ikasitakoak

- **Erref**: SOR-004/035
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:39:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:
Espainiako historia sakon ikasi zuten. Beste ikasgai batzuk; guztia liburu bakar batekin.

Transkripzioa
- Ba, Entziklopedia bat, hantxe zeuan dana, dana: Historia de España... Ay, aquella Historia de España! Aaaayyyy! Visigodos y Cartagineses ta...
- Bai, zetarako baiña, e? zetarako harek, baiña? Baiña...!
- Danak hantxe.
- Ikasi ein bihar!
- Ikasi ein bihar!
- Aritmética, Geometría, Geografía, todo-todo-todo en la... Doctrina, Catecimso... Todo. Dana, e... Entziklopedian. Dana! Ta haretxekin. Hamen [urtengo leuke] ta... Tanto como ellos, sabemos.
- ¿Tanto como ellos?

27. Irakasleak

- **Erref**: SOR-004/036
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:39:55. **Bukatu**: 00:41:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Irakasleak. Zigorrak. Irakasle batzuk jotaileak ziren. Irteerak.

Transkripzioa
- Maixuak zeintzuk izeten... ze eukitzen zenduen, andereñuak?
- Kanpotikan etortzen...
- Kanpotikan!
- Kanpotikan etortzen ziran, bai!
- Ta gogorrak izeten ziran?
- Bai, honek euki zaben bat gogorra, ni harekin ez non ibili...
- Señorita Felisa.
- Felisa ez bestia, zein... Bernarda ez zonan, ba?
- Bernarda, Bernarda, Felisa no, Bernarda! Harek ipintzen oskun hola eskua...
- Oiñ emon bihar umieri hori.
- Dinbi-danba, e! Dinbi-danba!
- Oiñ emon bihar!
- Egurra-egurra!
- Holaxe ipiñitta, e! Holaxe ipiñitta. Menudo miedo, e? Menudo miedo!
- Menudo, ba! Bilddurrez! Ez dao deretxorikan...
- Otra vez me dio a mi esa, Bernarda, tenía un anillo así, con una piedra grande y ¿qué hizo?
- Buelta emon.
- Puso así, para no estropear, la pierna, la piedra. Me levantó el pelo y zipi-zapa! Jolin, me dio dos sopapos!
- Ta aguantaiñ! Ta aguantaiñ...!
- Bai, baiña aquello era lo malo, e? Aquello. Ipiñi hola eskuak eta, dinbi-danba han paluakin. No hay derecho a eso, e? Pues, ya nos daban, ya nos daban , ya nos daban
- Bai... Uuuu!
- ...Ya nos daban. Gero urtian behin eskursiñora, ba, juaten giñan. Bueno...! Benga Arratera. Jolin, haura zan poza, Arratera eskursiñora! Buenoooo...! Ba, bai. Ta beste behin be Loiolara be bai, heldu giñan behin... Bueno, pozik, eskursiñorako!
- Gustora juango ziñien... Autobusian?
- Loiolara bai. Arratera oiñez, oiñez...
- Juan zaitte!
- Tipi-tipi-tipi-tipi...
- Ez dao, ez dao, ez dao deretxorik, baiña... pasau ein bihar!
- Zuek ez dakizue!

28. Antzinako bizimodua

- **Erref**: SOR-004/037
- **Iraupena**: 0:00:15. **Hasi**: 00:41:25. **Bukatu**: 00:41:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Antzinako bizimoduaren inguruko iritzia. "Zuek ez dakizue...; hobe gaiñera ez jakitzia".

Transkripzioa
- Pasau ein bihar...
- Zuek ez dakizue zer dan bizimodua...
- Honek ez jakiñe ezebe... honek ez jakiñe ezebe, ezebez!
- Ez dakizue. Ta hobe, gaiñera, ez jakitzia, e!
- Pasau ein bihar dira horrek...
- Hobe, gaiñera, ez jakitzia.
- Ez. Holaxen.
- Hobe.

29. Herriko jaiak

- **Erref**: SOR-004/038
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Herriko jaiak. Santa Ana eguna nola ospatzen zuten. Kontsejupean ardo zahagia ipintzen zuten. Santa Ana kalean zezena. San Roke txiki egunean, sokamuturra. Andra Mariak. Suzko gurpilak.

Transkripzioa
- Herriko jaixak eta oinguen aldian be diferentiak izango zian ba, ezta?
- Baiña polittak!
- Orduan ez zan urtetzen, oingo moduan ta...
- Santa Ana jaixak ez ziran eitten orduan, Santa Ana jaixak egoten zan Kontzejupian, hor e, Udaletxeko azpixan, egoten zan zaharagixa, zaharagixa ipintzen eben.
- Ze da hori?
- Zaharagixa, ardauan zaharragixa.
- A, ardauana, bai.
- Sí, ipintzen eben Kontzejupian, ta han daneri ardaua emoten zotsen. Jolin! Taillarretik urten ta antxitxiketan gizon guztiak...
- Ardaua eratera?
- Ta hauraxe, Santa Ana egunian. Santa Ana egunian...
- Ez, ez, hemen beti...
- Ta etaratzen eben zezena, Santa Ana kalian, hauraxe izaten zan Santa Ana... baiña biharra einda, e? Santa Ana egunekua. Ta gero San Roke Txiki egunian sokamuturra izaten zan, suelto ez zan ibiltzen, e, zera...
- Sokiakin
- Sokiakin. Baiña herri guztian e? Herri guztian. Aquello era peligroso e? Haura sokiakin trabau ta...
- Juaten zan lekura?
- E?
- Juaten zan tokira berari jarraittu?

- Bai. Ta, gaiñera, trabatzen baziñan sokiakin, e... Baiña orduan izaten zan sokamuturra. Ba, bai. Ta Andramarixak, ba, polittak!
- Bien, ondo, ondo.
- Polittak. Buenoo!
- Gu behintzat pozik! Enee!
- Ya lo creo, urte guztian ez genduan urtetzen gabian ta... Han, Plaza Zaharrian, allí solía poner la... Tiburtzi, la de Galo...
- Ipintzen zeban, tabernatxua edo?
- Ta bestia be bai, beste aldamenian be bai, Calixto, Calixto Bolumburu...
- Bueno, baiña ese luego, más tarde.
- Pero oyee...
- Eta eitten zeban mantekaua, horrek Tiburtzi horrek, eitten zeban mantekaua. Jolin! Todos los días del año esperando a Andra Mari, aittakin ta amakin, Plaza Zaharrera, mantekaua, con unos, esos...
- Barkillua edo...
- Barkilluekin.
- Juan hari oin, juan hari oin!
- Aquel mantecao, una copa de mantecao con [...]... Jolin... Haura zonan ona, haura zonan ona!
- Bai ba, urtian behin, Martina, urtian behin.
- Bai, urtian behin. Ta suzko erroberak be egoten zian, e!
- Baitta.
- Baitta, suzko erroberak be bai.
- Hori ze da, zezena moduan edo zela izaten zan hori suzko erroberena?
- Suzko erroberak dira, e...
- Iturri gaiñian, "fuegos artificiales" dira suzko erroberak.
- Bai, horixe, suzko erroberak. Bai...

30. Herriko jaiak

- **Erref**: SOR-004/039
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:43:50. **Bukatu**: 00:44:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Herriko jaiak asko aldatu dira. Lehen bertakoak bakarrik egoten ziren. Lehengo bizimodua.

Transkripzioa
- “Fuegos artificiales” dira...
- Bai, horixe.
- ... suzko erroberak.
- Suzko erroberak?
- Bai.
- Txapliguak...
- Bai. Gaiñera zela izaten zan herriko jentia bakar-bakarrik... Oin geu gara extranjeruak hamen, e! Geu gara oin extranjeruak!
- Bai, oin kanpotik jente asko etortzen da...
- Kanpotik etorri dan jentiak aintzen dau oin hamen. Baiña orduan zela

danak giñan...
- Hamenguak, hemenguak.
- ... bertakuak. Danak bertakuak eta beste... beste zer bat zeuan. Oin, oin, “Mira aquella qué vestido lleva” ta “ Mira aquel...” ta ez, diferentia da.
- Bai, lehen konformiau. Nik ez dakit beste... Ez zan oingo modokua. Ke ba!

31. Musika banda

- **Erref**: SOR-004/040
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:44:25. **Bukatu**: 00:45:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Soraluzeko Musika Banda. Bergaratik ere Musika Banda etortzen zen.

Transkripzioa
- Ta ze egoten zan bandia ta holako zerak?
- Bai! Bertan euan hemen bandia, e! “Banda San Inacio”. Bai. Banda famosua, gaiñera!
- Ta Bergarako... Bergarako bandia etortzen zanian ta, e?
- Bai, bai.
- Aii...!
- Ta harek pasakallearek?
- Bai, pasakallearek...
- Gero, gabian, amaitzen zanian dana, pasakallia zerakin, bandiakin. Ala! Danak antxitxiketan! Heldu holaxek eta danak pasakallian! “Más bien que que... no sé”. Abarketekin, e! Abarketekin!
- Ez, zera! Oingo moduan?
- Oin baiño kaso gehixao eitten jakon, orduan, bandiari?
- Onbre! Onbre! Bai. Ondo pasatzen zan!
- Ederto.
- Andra Marixak gustora pasatzen [giñuan], ilusiñuakin. Ilusiñuakin. Oin urte guztian dia jaixak!
- Bai. Hemen beti dao oin, baiña lehen...
- Oin urte guztian dira jaixak. Eske...
- Aii...
- Jatekuekin be, bueno, igual.

32. Bizimoduaren aldaketa

- **Erref**: SOR-004/041
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:46:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:
Bizimodua asko aldatu da: jaiak ospatzeko modua; jatekoa...

Transkripzioa
- Eske...
- Aii...
- Jatekuekin be, bueno, igual. Gabonetan, ene...! Oillaskua. Gabonetan oillaskua jateko, haura zonan... Ta oin zer?
- Oin oillaskua egunero! Turroia be, turroia be...
- Andra Marixetan ta gabonetan oillaskua.
- Lehen turroia be gabonetan. Oin zer?
- Ta ze? Holakotxe zati bat!
- Hori, gaiñera. Bai, egixa, egixa.
- Bai, bueno! Bai. Ta gabonetan ta jaixetan oillaskua. “Más bueno...”!
- Lehen zer, ba? Babia ipini han zerakin, olixuakin ta...
- Urdaixakin.
- ... urdaixakin, ta jan haura ta konforme!
- Ta egunero, gaiñera, e! Ta egunero!
- Egunero! Eske jaten badozu... Oin be jaten badon plater bat haura, bestia...
- Bueno, baiña...
-... zetarako bestia gaiñekua?
- Bueno, baiña... “Gaur be hori?”
- Bai, hori bai. Oin bai.
- “¿Hoy también eso?”
- Onbre! Esan honeri!
- “Naturales eran o no sé. [comidas]] más naturales o”...
- Oin zer? Haura ez dala hazten han, bestia ez dakit zer, bestia...
- Bai.

33. Etxearen ingurukoak

- **Erref**: SOR-004/042
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:46:20. **Bukatu**: 00:47:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Argia eta ura etxeetan betidanik ezagutu dute. Harrikatza; egurra.

Transkripzioa
- Lehenao argirik eta be...?
- Guk bai, hamen euki... nik ezagutu dot.
- Neuk be bai.
- Nik ez dot ezagutu argi barekorikan, e?
- Ez, ez...
- Larogei urte eittera noia baiña ez dot ezagutu argi barekorik. Ez, euki dou, argixa ta ura euki dou.
- Bai, egixa.
- Sua izango zan lehen egurrakin, ezta?
- A! Bai, hori bai, hori bai.

- E?
- Sua, sua.
- A! Bai, sua, sua.
- Orduan bai. Orduan ez eguan beste zeoze.
- Egurra ta harrikatza.
- Harrikatza be bai, e?
- Bai, harrikatza be bai. Harrikatza be asko.
- Asko, bai, bai... Orduan ez eguan butanorik eta, pentsau be ez...
- Ezta! Bueno! Bai. Holaxen ba...

34. Erregetxea

- **Erref**: SOR-004/044
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:47:20. **Bukatu**: 00:49:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Erregetxea. Goikaldean zegoen beraien eskola. Kartzela.

Transkripzioa
- Lehenao... aber... Erregetxia edo zeuan hor, ezta?
- Bai.
- Bai, bai.
- Haura ze...?
- Hortxe... hortxe zauen gure eskolia, erregetxian. Bai, bai.
- Goixan. Erregetxian goixan zeukaun eskolak. Eskolak.
- A! Han zan, e?
- Bai.
- Bai, bai, Erregetxian.
- Ta han ze zeuan patixo bat erdixan-ta?
- E?
-Patixua-edo zekazuen edo...?
- Patixua ez, behian zeuan... leku haundixa behian be. Han...
- Bai, han “caballería” […]. Kaballerixia egon ei zan hor, eskolen behian, kaballerixia. Ta gero, ez dakit, ba, armendako...
- Almazena edo igual?
- Horrek badauka berorren historixia, e! Nik ez dakittetena. Baiña Erregetxian erregia be izan zala, erregia be izan zala. Ta hamen armak eitten ziran. Armak eitten ziran.
- Hortxe [egoten] da eskolia, hortxe.
- Bai. Armak eitten ziran hamen. Eta gero, ba, hor, gure eskolapian “que había tanto eso... la caballería que solían tener allí”.
- Bai, “ya había allí como un patio”.
- “Sí, pues, la caballería que solían guardar allí”. Eta gero, ba, “aquella”... haura etxiaura, “sería donde... cuando venía el rey se aposentaba” edo...
- “Sí”. Zeoze izango da, Erregetxia, ba, izango da zeoze!
- Ez zoskuen sekula... horren historixarikan eskolan be ez zoskuen emon, e! Ez zoskuen emon horren historixarik.
- Haura etxe haundixa zan, baiña...
- Haundixa!

- Bueno...!
- Haundixa! Erregetxia? Haundixa! Bai. Kañoiak-eta egoten ziran hor. Bai.
- Hantxe, gure eskolia... gure eskolia hauraxe.
- Bai. Ta han bazeuan beste lokaltxo bat be: karzelia.
- A! Baitta! Bai.
- Hortxe Erregetxian zan lokal bat zeuan, haura karzelia zala.
- Bai, ta bentana bat errejekin. Ez dakizu? Bateronbat hartu igual, bateronbat etorri igual eske edo ta hau [...], hantxe. Egun bat edo bi juan ta gero...
- Onbre, onbre.

35. Komentua; ospitalea

- **Erref**: SOR-004/045
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:49:20. **Bukatu**: 00:51:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Agustinen komentua. Zubi bat beraien ortuetara joateko. Ospitalean, mesedeetako mojak.

Transkripzioa
- Gero konbentuak be bazeren, ezta?
- Baitta, konbentua.
- Bai, hor Santa Ana kalian, sekulako konbentua.
- Bai... Hiruretan joten zeben, hiruretan kanpaiak.
- E? Bai, bai... Haura be kendu ein eben...
- ... eta gero kapillia be bazeuan...
- Las Agustinas, bai.
- Zortziretan egoten zan mezia... goizeko zortziretan.
- Eta gero zeuken e, zubi bat, oindiokan be badao hori zubixori?
- Ez, ez.
- Bota eben?
- Bai.
- Zubixa zeuken beren orturako, beren orturako...
- Oiñ, e... ez dakizu? Zeintzuk bizi dia hor? Hire... heure etxia ta, ez zittunan harek beren ortuak, konbentuko ortuak? Zuek etxia...? Bai, hortxe.
- Bai, bai... Kalonge bai... Eta han zeuken beren hillerrixa. Berak enterratzen zittuen, e? Moja bat hiltzen bazan, bertan. Horrek monjok horrek zeren "de clausura", medikuari be ezin jaso...
- Agustinas.
- "Sí, las Agustinas. Sí."
- Gu juaten giñan mezetara hamaika bidar, baiña berak han ikusteke, e! Juaten ziñan jauna-hartzera baiña ez zian ikusten.
- Ke ba! Beti tapauta, beti tapauta.
- Eta ze zeuan, konbentu bat baiño gehixao?
- Ez, horixe, horixe.
- Horixe ta ospittala. Ospittalian Karidadekuak, baiña harek ibiltzen zian...
- Bai, normalak. Baiña honek ez. Honek ez.
- Honek e... "Esas, tuberculosas morirían", beti tapauta, beti tapauta,

euzkirik eta haizerik ez eben ikusi be eitten... Ba horixe konbentuori oindiokan ez da denpora asko bota ebela, horretxek etxe barrixok ein dittue hor Santa Ana kalian eta gero, ospittala, ospittalian be "las Mercedarias"...
- Ospittala be ez da oingua.
- Ene!
- Haura zan txikixa, ta han juaten zian, ba, batzuek, mojetara, han estudixatzera.
- Bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com